ANGELUKO IKASLEAK

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1999-2000 IKHAS. URTHEA.

# LEHENBIZIKO ERAKASPENA.



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Zer da ohidura? Hemen aipu den ohidura hori zer da
2. Nun gerthatzen da? Eta zeren inguruan.
3. Erronkarikoek nor igortzen dute ordezkari?

## (II) HIRU BEHIEN ZERGA

Nafarroan ditugun ohidura zaharrenetarik bat da, Erronkari-koek Frantzia-ko mugan egiten duten bilkura, urte guziz, Baretous, biarnes herrikoekin.

Nafarroako Iparraldeko mugetan betidanik izan dituzte eztabaiak bertze aldekoekin, Xubero eta Biarnesekin, azinden bazkatzeaz. Heien artean badituzte legeak, antolamenduak eta hautsi-mautsiak haratekoek hemengo aldean, eta hunateko-ek hangoan, behiak, ardiak eta behorrak bazkatzeko bi alderdietako alapidetan.

Ez dakigu xuxen hortik piztu othe zen aitzineko demboretan gudu bat heien artean, eta gero Erronkarikoak nausiturik, Baretous-ekoak bortxatuak izan ote ziren hemengoek ezarri zazkoten zergak pagatzea. Betiere, urte guziz hangoek Uztailaren 14-an behar dituzte eman Erronkarikoeri hiru behi, eta mugan egiten dute bilkura hori heien emaitza hartzeko.

Bi alderdietako yende multxo bat biltzen da han *piedra de san Martin* deitu zedarriaren inguruan, turistak ere huts egin gabe, harat heltzeko bospasei ordu mendiz ibilikan.

Erronkari-ko alkatea eta zinautziak beren karguko soineko berexi-ekin, biziki pollitak, eta albaiteruarekin yuaiten dira herriko ikurrina aitzinian.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Egiten dute. 32. Badituzte
33. Ezarri zazkoten. 34. Ez dakigu.

### 31. Egin. Indicatif Présent. Conj. forte ou synthét.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Nik dagit | = je (le) fais | dagizkit | : je fais l(es) |
| Hik dagik/n | = tu (le) fais | dagizkik/n | : tu fais le(s) |
| Zuk dagizu | = vs (le) faites | dagizkizu | : |
| Harek dagi | = il (le) fait | dagizki | : |
| Guk dagigu | = ns (le) faisons | dagizkigu | : |
| Zuek dagizue | = vs (le) faites | dagizkizue | : |
| Heiek dagite | = ils (le) font | dagizkite | : etc. |

(C! D! S!)

### 31bis EGIN. Indic. Présent. Conj. faible ou périphras.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Nik egiten dut | = je le fais | egiten ditut | : je les fa(is) |
| Hik —"— duk/n | : tu le fais | —"— dituk/n | : tu les fa(is) |
| Zuk —"— duzu | = vs le faites | —"— dituzu | : vs les fai(tes) |
| Harek —"— du | = il le fait | —"— ditu | : il les fai(t) |
| Guk —"— dugu | = ns le faisons | —"— ditugu | : ns les f(aisons) |
| Zuek —"— duzue | = vs le faites | —"— dituzue | : vs les f(aites) |
| Heiek —"— dute | = ils le font | —"— dituzte | : ils les (font) |

(C D S i N G)

### 33. UKAN. Conj. à dble cplt. Indic. Présent

Objet sing. C. Indir. sing.

HARI = A LUI

| | | |
|---|---|---|
| Nik diot | : N. dakot | = je le lui ai |
| (Zu)k diozu | : Z. dakozu | = vs le lui avez |
| Harek dio | : H. dako | : il le lui a |
| Guk diogu | = G. dakogu | = ns le lui avons |
| Zuek diozue | : Z. dakozue | = vs le lui avez |
| Heiek diote | : H. dakote | = ils le lui ont |

Obj. plur. C. Indir. singulier

| | | |
|---|---|---|
| N. dizkiot | : N. dazkot | = je les lui ai |
| Z. dizkiozu | : Z. dazkozu | = vs les lui avez |
| H. dizkio | : H. dazko | = il les lui a |
| G. dizkiogu | = G. dazkogu | = ns les lui avons |
| (Z.) dizkiozue | = Z. dazkozue | = vs les lui avez |
| H. dizkiote | : H. dazkote | = ils les lui ont |

### 33. bis. UKAN

C. à dble Cplt

Indic. Imparfait

HEIERI = A EUX

Obj. sing. Cpl indir. pluriel.

| | | |
|---|---|---|
| Nik nien | = neien | = je le leur avais |
| Zuk zinien | = zinteien | = vs le leur aviez |
| Harek zien | = zieien | = il le leur avait |
| Guk ginien | = gineien | = ns le leur avions |
| Zuek zinieten | = zineiten | = vs le leur aviez |
| Heiek zieten | = zieiten | = ils le leur avaient |

(Basse Navarre)

Obj. pluriel. Cpl indir. pluri(el)

| | | |
|---|---|---|
| N. nizkien | = nezkien | = je les leur avais |
| Z. zinizkien | = ziniezkien | = vs les leur aviez |
| H. zizkien | = ziezkien | = il les leur avait |
| G. ginizkien | = giniezkien | = ns les le(ur) avi(ons) |
| Z. zinizkieten | = ziniezkieten | = vs les le(ur) avie(z) |
| H. zizkieten | = ziezkieten | = ils les leur ava(ient) |

(Basse Navarre)

ou encore pour la Basse Navarre _ C.O. plur. C.I. pluriel.
N. nazkoten, zinazkoten, H. zazkoten, G. ginazkoten, Z. zinazkoteten
Heiek zazkoten ( zazkoteten)

ORHOITZAPENETAKO = POUR MÉMOIRE